

«Ez nuen inondik inora lehiaketa irabaztea espero, eta barre egin nuen esan zidatenean»

LANDER ZABALETA 400 urtez aske logotipo lehiaketako irabazlea

MIRIAM LUKI

Lander Zabaleta (Legazpi, 1976) aurreko jaso zuen 1.000 euroko saria, Legazpiko kultur etxean. Logotipoan kolore gorria eta beltza erabili ditu, «askatutako kate-begia irudikatzeko». Legazpi Seguratiak banatu zeneko 4 mendeurrenako ekitaldi guztiak iragarriko ditu logotipoak.

Zeregin zenuen irabazle zinelakin zenuen?

Barre egin nuen, akaso irabaztea ez nuelako inondik inora espero. Izan ere, banekien herriko diseinatzaile profesionalak lehiaketara aurkeztu zirela.



MIRIAM LUKI

Diseinua afizioa da zuretzat?

Bai. Aurreneko aldia da nire lana lehiaketa batera aurkezten dudana. Nolanahiere zaletasunaz zait falta.

Orduan, kartelgintzan eskarmentua bazenuen?

Kartelak egitea beti izan dut gustuko, gaztetxeko ekitaldiatarako asko egin izan ditut. Gainera, diseinuarekin harremana duen lana daukat, ELA sindikatuko komunikazio sailean lan egiten dut eta han denetarik egitea egokitzen zait.

Nolanatan animatu zinen lehiaketan parte hartzera?

Behar nuen guztia nuen Ordena-

gailurako programak banituen eta nola erabiltzen diren ere banekien. Gainera, saria oso erakargarria iruditu zitzaidan.

Eta orain pozik zaude...

Bai, oso pozik. Gainera, hasiera batean leloa *Legazpi, 400 urte aske* zen, baina ni despistatu egin nintzen eta kartelean *Legazpi, 400 urtez aske* ipini nuen. Horrela utzi dute eta horrek ere poztasuna ekarri dit.

Orain zure logotipoa nonahi ikusteko aukera izango duzu urteurrenaren harira antolatutako ekintzak direla eta.

Bai, historiara pasatuko naiz [barreak].

Beste lehiaketa batzuetara aurkezteko grina piztu al dizu sari honek?

Bai. Adi egon nahi dut, eta nire bidean topatzen ditudan lehiaketetara aurkeztuko naiz. Zaletasun hau lantzeko denbora bilatu beharko dut.

Zabala da EAE-ANVren hautagaia Senaturako

Urretxu » Iñaki Zabala, Urretxuko alkatea, Espainiako Senaturako zerrendaburu izango da martxoaren 9ko bozetan.

M. LUKI

Iñaki Zabala, Urretxuko alkatea, Espainiako Senaturako hautagai izango da datozen hauteskundeetan, EAE-ANVren Gipuzkoako zerrendan. Josu Zabala, Idoia Aldama eta Maite Ezkurra alderdiki-deekin batera aurkeztuko da.

Zabala Amezketan jaio zen 1947. urtean, eta iazko maiatzetik Urretxuko alkate da.

Bere alderdikide eta Nafarroako zerrendaburu Marine Pueyoren arabera, EAE-ANV taldea Espainiako hauteskundeetara helburu batekin aurkeztuko da: «Independetzia lortzea eragozteko PSOEek Na Bai-rekin eta EA Irekin abian jarri nahi duen operazio politikoa geratzeko eta salatzeko».

Ilegalizazioaren aurrean

EAE alderdia ilegalizatua edo baliogabetua gera badaiteke ere Pueyok hauteskundeetara aurkezteko asmoa dutela berretsi zuen, asteburuan Espainiako Kongresurako eta Senaturako zerrendaburuak publikoki jakinaraziz zituztenean.

Goierrri Verkolek galdu egin du Gasteizen

Urretxu » Baskonia Fundazioa taldeak lehenengo lau minutuetan 11 puntuko alde atera dio talde urretxuarrari.

M. LUKI

Baskonia Fundazioaren kontra Gasteizen jokatu fako partida galdu egin du asteburuan Goierri Verkolek (100-67).

Baskoniako jokalariek Goierrikoiei defentsa gogorra egin zieten, eta urretxuarrak ez ziren saskiratzeetan fin ibili.


Partidakoa laugarren minutuan

Gasteizkoek hamaika puntuko alde ateratzen zieten dagoeneko. Goierrikoek asmatzen ez zuten bitartean, Baskoniakoek puntuak gehituz jarraitu zuten, alde handi markagailuan aurrera eginaz.

Atsedendian hogei puntuz

Goierriko arduradunek adierazi dutenez, atsedendian hogei puntuko alde kontra edukita ere, urretxuarrak saiatu ziren markagailuan tarte jaten eta emaitza iraultzen, baina ez zuten lortu.

«A-Ierako aukerak galdu ditugunean A-2ra egoera onenean iristen saiatu behariko gara», dio Xabi Chico entrenatzaileak.



2005eko datuen arabera, Legazpin 8.618 biztanle zeuden. Zergadunen artean 220k huts egin dute. MIRIAM LUKI

Udalak 220 kontu korrante bahitu zituen iaz Legazpin

Legazpi » Zordunei 13.000 euro kendu dizkie udal ogasunak; zorrak kitatzerakoan %20eko gainkarga ezartzen dute.

MIRIAM LUKI

Udal zergak ordaintzen ez dituzten hiritarren 220 kontu korrante bahitu ditu Legazpiko Udaleko Ogasunak 2007an. Ordainkizunen bat duten zordunen aurka udal ogasunak gehien erabiltzen duen baliabidea kontu korrantea bahitzea izaten da.

Udalak iaz bahitutako kontu korrante horien guztien jabeen artean, zordunen artean, alegia, 13.167,27 euro bildu zituen. Zordu-

nei Udalak ezartzen dituen epeen barruan ordaindu gabeko zergen zenbatekoa kendu zieten.

Indarrez kobratutako kopuruei, jatorri izko zor nagusiaz gain, zorraren %20ko gainkarga, interesak eta sortu diren kostuak gehitzen zaizkio.

Eraginkortasun handiagoa

Zerga-bilketako Foru Arauak eta Erregelamenduak udalei kontu korranteak bahitzeko aukera ematen die. «Azken urteotan Legazpiko Udalak baliabide hau erabili du zorrak ordainarazteko, eta horrek erakundearen zerga-bilketako sarrerak handitu ditu», dio Legazpiko Udaleko Ogasun saileko Mitx Markotegik.

«Ordainketak berandu egiten

dituztenen aurkako borrokan darraigun nahitaezko diru-bilketaren eraginkortasun handiagok izozte fiskala eta udal zerga garrantzitsuenak Kontsumoko Prezioen Indizeaz gainetik ez igotzea ekar dezake».

Iragarki laburrak

ALOKAIRUA

■ **Apartamentua.** Martxoaren 14tik 30era (edo 19tik 24ra) apartamentua alokatzen da Jacan 676 6153 61

■ **Etxebizitza.** Alokatzeko pisu bilari da bikotea Beasainen 687 79 55 57